

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Talentu, adikzio eta arazo psikologikoak



Amaia Alvarez Uria



Gelditu zaitezte gurekin

ANA MALAGON

Elkar, 2017

Ipuin bilduma honetako hamalau izenbueruek azpimarratzen digute narrazio bakoitzean zeri erreparatu behar diogun: eguneroko bizimoduak ekartzen digun miseria erakusten zaigu gordin eta zuzen lehen pertsonan hitz egiten digun ahots narratiiboaren bidez.

Literaturaren funtzioetako bat bere garaiko jendartearen isla izatea da, hau erreproduzitu edo deseraikitzeke. Eta hori da ondoen egiten duena egileak ipuinotan. Multinazionalen, neoliberalismoaren eta AEBen inperioaren globalizazio eta kontsumismo garai honetan bakarrik gaude eta saiatu behar gara “nor” izaten, ingurukoekin harreman (prekario)ak egiten, eta “zoriontasuna” lortzen.

Emakume izateko eta gizon izateko moduei begiratzen zaie *Duty free* edo *Jane Doe* ipuinetan; maitasunari eta sexuari, bikote harremanei, edo familiari buruzkoak topatuko ditugu *Non gorde behar diren ez dakizun gauzak*, *Logela zerbitzua* eta *Udaberri familiarra* narrazioetan; belaunaldien arteko konplizitate eta gaizki-ulertuak aurkituko ditugu *Egunen batean* edo *Zaborraren minutuak* testuetan.

Marina Garcés-ek dio egungo indibidualismo kapitalistan komunitatea eratzera jo behar dugula, besteekin elkarreraginean sartuz eta egoerarekiko kontrola galduz (ipuinotan agertzen diren egoerak gainditzeko, kasu). Subjektu haragiztatuok elkar (h) u(n)kituz partekatzen duguna aurkitu ahal izango dugula horrela (irakurleak sentituko duena testua irakurtzean).

Brigitte Vasallok ordea, esaten du aparatu sozialak akuilatuta gorputzak eta afektuak kontsumitzen ditugula, monogamia gainditzear eta poliamodioaz diharduenean (elkarrekiko egarri hori aurkituko dugu orriotan), hau da, eremu sexu-afektiboan kapitalismoak lortu duen azken konkista gorputzak eta desirak kontsumorako objektu bihurtzea dela (harremanok nola ulertzen ditugun hausnartzeko aukera ederra da liburu hau).

Generoa zehaztu gabe egongo da ipuin hasiera askotan eta protagonista sozialki nola kokatu behar dugun jakin gabe geratuko gara tarte batez. Maiz pertsonaia nagusiaren intimitatearekin identifikatuko gara eta bere mina partekatuko dugu. Aireportua, hotela eta ospitalea bezalako ezleketan Franz Kafka edo Lewis Carroll gurutzatuko ditugu. Gaixotasuna, zahartzarora eta heriotza brau agertuko zaizkigu.

Ana Malagonek bere bi liburuetan tonu eta estilo pertsonalak erakutsi dituela ezin da ukatu, begirada propioa du. Izan ere, gauzak argi esatera etorri zaigu: “Gure bizitza ez da igeriketa sinkronizatu bat”, baizik eta “talentu, adikzio eta arazo psikologikoen nahasketak bat”. ■



Ana Malagon Zaldúa idazlea (Donostia, 1978).